

EUSKALZALE

EDERGARRIDUN ALBISTARIA

IRAKURKIZUNAK: I. Lekeitio.—II. Gabonkaria.—III. 1.000. 800. 90. 8.—IV. Apaltasuna.—V. Iru Erregeak.—VI. Izkirimiriak.—VII. Arduaren ipuinak.—VIII. Anka bateko egatia.—IX. Jesusen agerkeria.—X. Bi berri tsar.—XI. Aurtengo lenengo Tsiristada.—XII. Ezeziak Jesusi.—XIII. Batzaldia.—XIV. Igorkizuna.



LEKEITIO

Doña Maria Diaz de Haro-k 1325-garren urteko zemendi edo azaroaren 3-garren egunean, emon eutsan Lekeitiori uri-izena. Onetarako berak bertan eukazan lur guztiak (1) eta Andra Mariaren Elizearenak emon eutsazan.

Muga edo guentzat izentau eutsazan alde batetik Aretxukaondo, emendik Ateguren-go solora, Ateguren-dik Idoietara, Idoietatik Igoz-burura. Beste aldetik Mantsoaran-go ibaira (2), Sausatan-go zubi-

(1) *Doña Mariak* berak Lekeitian azoka edo *Maria*-ondoan eukazan iauregiak ez, beste guztiak. Arik gerotsuago beren iauregi bat emon eutsen emakuma bakartar edo *monja* dominikanañak kartegi bat egiteko. Bakartegi auste (gaur asko barriraztuta dago) eida Euskalerrian lenengo sorturikoa.

(2) Gaur Lea deritso ibai oai, batzuk Lekeitio esanarren. Gure ustez *Lekeitio*-ren izena ezator *ez Leku ito*-tik ez *Lekio*-tik. Izan onetan *Lea* ibaiaren izena zelanbait sartuta dagoala esan leike.

raño (1). Beste aldetik Igoz-tik itšasora ta Leia-tik itšasora; ta Bedarona-ko Eliza-ondotik Arrileunagaraño (2).

Don Tello-k eta Doña Juana-k sendatu eben emoitza au Bilbon 1391-ko zemendiaren 25-ean.

Bertako Elizea zaldun batzurená (*caballeros diversos* eritšea) eizan, da Ibarrangelu ta Arbazegi-ko Bakartegien ordez len aitaturiko Doña Maria Diaz de Haro-ri emon eieutsen.

Don Alonso amaikagarrenak muruz ingiratutea

(1) Gaur *Luama* edo *Esuneta* deritso orduko Sausatan-i. Orduko mugen izenak Aretxukaondo, Ateguren, Idoieta ta Igoz galdu etedirealakoak daukagu. ¿Arrileunaga ta gaurko Ogeña bat etodira? Arri leunik asko dago beintzat toki onetan.

(2) Zertzelada edo zetasun geingo iakin nai izan-ekero, irakurri beste Labayru iaunaren *Historia General de Bizaya*, bigarren liburuko 812-garren orrialdean.

1898

Lekeitio

Argazkia 1894 ingurukoa da, baina egunkari honek 1898an erabili zuen. Uste dugu Hauser y Menet etxearena zela Landaburu Hermanas-en album batean ere ikusi dugu eta. Egunkariari argazkia hobetu diogu kalitate hobean geneukalako.



Euskalzaletze aldizkaria, 1898-1-6

Doña Maria Diaz de Haro-k 1325-garren urteko zemendi edo azaroaren 3-garren egunean, emon eutsan Lekeitiori uri-izena. Onetarako berak bertan eukazan lur guztiak¹ eta Andra Mariaren Elizarenak emon eutsazan.

Muga edo guentzat zientau eutsazan alde batetik Aretsukaondo, emendik Ate-guren-ko solora, Ate-guren-dik Idoietara, Idoietatik Igoz-burura. Beste aldetik Mantsoaran-go ibaira², Sausatan-go zubira³. Beste aldetik Igoz-tik itsasora ta Leia-tik itsasora; ta Bedarona-ko Eliza-ondotik Arrileunagaraiño⁴.

Don Tello-k eta Doña Juana-k sendatu eben emoitza au Bilbon 1391-ko zementiaren 25-ean.

Bertako Elizea zaldun batzuren (*caballeros diviseros eritsea*) eizan, da Ibarregelu ta Arbazegi-ko Bakartegien ordezen aitaturiko Doña Maria Diaz de Harori emon eieutsen. Don Alonso amaikagarrenak muruz inguratutea agindu eban. Sei oñeko lodiera euken muru onek. Gaur une batzuetan baño ez tira agiri. Bost ate egoazan eurretan: Eleizatea edo Atea, utsik (Esperantzakoa bere esaten iakon); Zumatzeta (au geure egunetan bide berri bat edegiteko beeratu edo eratzi dabe); Apalota ta Bidaldi oneko Andra Mariarena.

Gaur lako iru eizan uri au amaboskarren eunki edo mende edo sigloa asieran. 1435-garren urtean izaniko sualdia ande (sic) batek asko gitsitu eban, da gerotsuago eregi eben uri-erdi-inguruan onmatzar andi bat (gaur bere Intsaurrendokalean ikusi leikeana) aurrerantzean izan eikezan sualdietan alde batetik bestera garrak ez ioatearren. Orma oneri eskerrak etzan Arranegi-aldera igaro 1895 (sic)-garren urtean izaniko sua. 1598-garren urteko izurri edo gats batek el ebazan Lekeitiar geienak.

Gaur iru mila ta bosteun bizi-inguru daukaz. Lekeitiarrek eztauken atzean isteko euren

Reges debellavit, horrenda cete subiecit terra marique potens Lequeitio

Udaletsean dagoz berba onek ezarrita. Erri onetako itsas-gizonak baloiak ilten guztiz errimeak izan zireleako daukaz, berba onezaz ganera, ezaugarritzat ontzi tsiki bat baloi-atzean da goiko aldean gaztelu bat; Errege Moro biren buruak albo banan dabezala.

Gauzarik ikusgarrienak dira Elizea, Basilica-izendaduna, iauregi eder batzuk, Gaisotegia, zaar-gordekua, kaia, Izunza-ko zubia ta Eliza-ondoko zumardi edo alameda ederra. Uribarren da beren loba Abaroa-ri zor dauksaz Lekeitio-ko uri onek edergarrik asko: Itsaskinde edo Pilotaje-ko ikastetsea, Gaisotegi ta zaar-gordelekua, umezurtzentzako bizitoki ederra, Elizareen barriratzasunak, Jesusen Lagundikoarena izaniko Eliza barriratzutea, kale bat edo beste, iturriak, eta beste ondasun asko irakurkizun baten sartu ezin leikezanak.

Lekeitiar on guztiak gogo ona dautse euren Ama miraritsu Andra Mari Antigua-koari. Beren irudia elorri baten ganean itsasondoan agertu zan, da elorri-ondo ta guzti ekarri eben Elizara. Estualdi askotan igarteko gizan lagu egin dautse beren semeai.

Barri geiago iakin nai dabenak irakurri bei len aitaturiko Labayru-ren liburua ta Iturriza-k atonduriko *Historia de Vizcaya*.

1 Doña Mariak berak Lekeitio azoka edo plaza-ondoan eukazan iauregiak ez, beste guztiak Arik gerotsuago beren iauregi bat emon eutsen emakume bakartar edo monja dominikanai bakartegi bat egiteko. Bakartegi ause (gaur asko barriratzuta dago) eida Euskalerrian lenego sorturikoa.

2 Gaur Lea deritso ibai oni, batzuk Lekeitio esanarren. Gure ustez Lekeitio-ren izena ez-tator ez Leku-ito-tik ez Lekaio-tik. Izen onetan Lea ibaiaren izena zelanbait sartuta dagola esan leike.

3 Gaur Izunza edo Ezuntza deritso orduko Sausatan-i. Orduko mugen izenak Aretsukaondo, Ate-guren, Idoieta ta Igoz galdu etedirelako daukagu. ¿Arrileunaga ta gaurko Ogeila bat etedira? Arri leunik asko dago beintzat toki onetan.

4 Zertzelada edo zeetasun geiago iakin nai izan-ezkero, irakurri beite Labayru iaunaren *Historia General de Bizcaya*, bigarren liburuko 812-garren orrialdean.



Euskalzale goitik behera euskaraz idatzitako lehen egunkaria izan zen. 1897an sortu zuen Resurreccion María Azkue lekeitiarrek eta 1899rako zarratuta zegoen, Azkuek Bizkaiko gobernadore zibilaren agindua ez zuelako bete. Agintariek egunkari horretan gaztelania ikusi nahi zuten eta Azkuek ez zuen onartu.

El Noticiero Bilbaino, 1899-2-3

Por disposicion del señor Gobernador civil fueron recogidos ayer los números del semanario "Euskalzale", á cuyo director, don Resurreccion María de Azkue, le fué impuesta una multa.

Estas medidas obedecen á no haber enviado las pruebas á la censura antes de comenzar la tirada del periódico.

El señor Azkue se presentó en el despacho del señor Ortega y Frías para que fuesen revocadas los órdenes, á lo cual no accedió el señor Gobernador.